

# Aretxagazeta

FELIS BELTRAN DE HEREDIA  
ANDRA MARI 07 - 2 EZK  
ARETXABAETA


Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaeta • 1999ko azaroak 18 • 179. zka.



## Hator, hator etxera


### Presoak etxeratu arte gelditu barik



**EGUZKIGRAF**

# 20. Urteurrena

...hitzak soberan daude



Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 • Tfnoa: 943 79 18 44 • Faxa: 943 79 29 41 • ARETXABALETA - Gipuzkoa • E-mail: [info@eguzkigraf.com](mailto:info@eguzkigraf.com)



# Zer iruditzen zaizu Aretxabaletako euskal presoak Euskal Herrira plataforma? Zerbait lortuko ote dute?

**Sonia Morales**  
(Langilea)

Oso ondo, euskal presoen alde egiten den guztia oso ondo iruditzen zait.

Ez dakit zerbait lortuko den baina denok bultzatu beharko genuke eta gero ikusiko da zerbait lortzen den.



**Mertxe Diosdado**  
(Langilea)

Niri oso ondo iruditzen zait presoen alde lan egiteko horrelako taldeak sortzea, hemen egon beharko lukete-eta.


Zerbait lortuko dutelakoan nago.



**Damaso Uribesalgo**  
(Jubilatua)

Oso ondo, hona ekarri behar dira-eta.

Jarraipena izanez gero beti lortzen da zerbait, baina horretarako gogor jarraitu behar da beti aurrera begira.



**Joseba Lasagabaster**  
(Jubilatua)

Ondo. Ez dakit zerbait lortuko den baina zerbaitetik hasi behar da eta horrekin bakea lortzen bada konforme.



e s k u t i t z a



## Postontziak Aretxabaletako komunikabideak eta Loramendik

Ia urtea pasatu bada ere Durana kaleko lan lekura etorri ginenetik, azkenean jarri ditugu postontziak Loramendi e.e.koak eta Aretxabaletako komunikabideak-ekoak. Udaletxe zaharreko beheko solairuan daude, eskailera alboan, eta bertan zuen berri, iritzi, iradokizun eta noski, kexak sar ditzakezue.

Hemendik aurrera zerbait esateko daukazuenean badakizue non sartu eskutitza, guk, berriz, gustora jasoko ditugu zuen berriak.

**Loramendi e.e. eta Aretxabaletako komunikabideak**

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943 79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Arantza Antxia, Bego Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Rosa del Aguila, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



**Aretxagazeta**

# Galartzako dorretxea ofizialki inauguratu bazen ere abenduan bigarren inauguraketa egingo da herritarrentzat

Pasa den azaroaren 9an Galartzako dorretxea inauguratu zen. Mankomunitateak antolatutako inauguraketa ofiziala izan zen eta 50 lagun inguru bildu ziren bertan. Mankomunitateko lehendakaria Victoriano Gallastegi eta jerentea German Berezibar, INEMeko ordezkariak, Lanbide eskolakoak eta Anjel Bergaretxe, Aretxabaletako alkatea, Luis Errasti hirigintzako zinegotzia, Sokorro Unanue kulturako zinegotzia eta hirigintza eta kulturako teknikariak izan ziren. Dantzariak egindako

aureskuen ostean zinta moztu zen eta alkateak, mankomunitateko lehendakariak eta INEMeko ordezkariak hitz batzuk esandakoan inauguratutzat eman zen.

## Abenduan bigarren inauguraketa

Abenduan, bigarren inauguraketa bat egingo da, nahiz eta data zehaztu gabe egon. Hau Udalak antolatuko du eta pasa den legealdian udalean izandako alkate eta zinegotziak, herriko kultur taldeak eta herritar guztiak orokorrean gonbidatu nahi dira.

Galartzako dorretxearen lan nagusia pasa den legealdian egon ziren alkate eta zinegotziek bideratu zuten. beraz eskerrak eman eta nola geratu den bukatuta erakusteko aukera paregabea da inauguraketa hau. Herriko kultur taldeei ere erakutsi nahi zaie, euren ekintzak antolatzeko beste toki bat izango baitute hemendik aurrera.

Lan polita burutu dute bertan lantegi eskolakoek, txukun utziz. Orain barrua betetzea besterik ez da falta, eta horretarako modurik egokiena kultur ekintzez jaztea.

## Soldadutzara deialdia

Azaroaren 11n, urtero legez, soldadutzara joateko zozketa egin zuen Espainiako ejerzitoak. Zozketa hau egiten den azkenetarikoa da, bi urte barru nahi duena bakarrik joango baita.

Aretxabaletako Udala, 91-95 legealdian Aitor Antxia alkate zela, Udal intsumisioa egin zen. Honen arabera, ejerzitoak eskatutako in-

formaziorik ez ematea eta handik bidalitako berrikeria ere ez kaleratzea erabaki zen. Hurrengo legealdian, 95-99an hain zuzen, epaiketa izan zuen alkateak eta bertako epaiaren arabera Udala, soldadutzaren inguruko informazioa ematera behartuta zegoen. Xabier Mendizabal idazkariaren esanetan, honen aurrean alkateak, Juan Antonio Rodriguezek, epaia bete zedila eskatu zuen. Aurtentzen, ejerzitoak ez du herriko gazteen zerrendarik eskatu zozketa egi-

teko eta zozketan sartutako gazteen izenik ere ez da momentuz udaltxerara heldu. Helduko balira kaleratu egingo lirarteke, Anjel Bergaretxe alkate berriaren kontrako esanik ez dagoen bitartean.

Gaur egun herriko oso gazte gutxi joaten da soldadutzara, gehienak intsumisio egiten baitira. Dena dela norbaitek soldadutza non egin behar duen jakin nahiko balu ejerzitoak horretarako jarri duen telefono zenbakira dei dezake.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



**URKULU, S.L.**

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**IRIARTE**



Umeen  
erropa  
eta  
lentzeria

Durana, 8  
Tfnoa: 943 79 10 96



**LASAGABASTER-en**

**AUKERARIK ONENA**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## Aretxabaletako eskola arteko XI. Loramendi literatur lehiaketa

Urtero legez, aurten ere Loramendi euskara elkarteak, Aretxabaletan bizi edo ikasten duten ikasleentzat XI. literatur lehiaketa antolatu du. Arrakasta haundiko lehiaketa honetan, iaz, 161 lan aurkeztu ziren, 149 ipuin eta 12 grabaketa eta aurten ere lan ugari aurkeztuko direlakoan daude antolatzaileak.

### Lehen Hezkuntza ipuina eta poesia

Lehen Hezkuntza bi mailatan sailkatu dute, 2. zikloa eta 3. zikloa eta maila bakoitzean, gainera, D ereduak eta B edo murgiltze ereduak banandu egingo dira. Ipuinak edo poesiak aurkeztu ahal izango dituzte, ikasle bakoitzak lan bakarra. Gaia librea da, luzera, berriz, 2 orrialdekoa izango da gutxienez.

### DBHkoek nagusiei grabazioak

DBHn ere bi maila bereiztuko dira 1. zikloa eta 2. zikloa eta bakarka edo taldeka parte hartu ahal izango da. De-

ba Garaiko nagusiei grabatutako kantu zaharrak, ipuin eta pasadizoak, ohiturak, ogibide zaharrak edo antzekoak aurkeztuko dira. Lanak audio zintetan agertu arren, grabaketari dagokion aurkibide bat din A-4 orrian ere ekarri beharko da. Grabaketak, ezingo ditu 30 minutu baino gehiago izan. Ez dago esan beharrik lan guztiak, bai Lehen Hezkuntzakoak, bai DBHkoak euskaraz izan beharko direla.

Lanak, "Eskola arteko XI. Loramendi Literatur Lehiaketa" izenburuz, Loramendi Elkartearen lokalera bidali behar dira abenduaren 17a baino lehen. Sariak, berriz, 2000. urteko urtarrilaren 20an, arratsaldeko 7retan banatuko dira Loramendiko lokalean. Lehen Hezkuntzako herriko hainbat dendetan trukagarri izango diren bonoak emango zaizkie eta partaide guztiek jasoko dute saria. DBHkoen kasuan, saria elkarrizketatu onenarentzat izango da eta maila bakoitzeko hiru onenei dirua emango zaie.



*Loramendi  
literatur  
lehiaketa  
ikasleen  
artean  
arrakasta  
haundiko  
lehiaketa da*

Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.



**CONSUM EROSKI**

*Orain arrandegi  
eta okindegi, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA

**GEMES**

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

## Gora egin du Urkuluko uraren mailak

Azken egunotan Urkulura inguratuz gero hegatziz beteta dagoela ikus daiteke. Horrez gain, pasa den aste bukaeran egindako euri jasak direla-eta, gora egin du uraren mailak. Azaroaren 12an Gipuzkoako Ur Kontsorzioak emandako datuen arabera Urkulun, 5.896.394 m<sup>3</sup> zeuden, hau da, %58,96 zegoen beteta. Astearte honetan, hilak 16, jasotako datuen arabera berriz, 5.968.037 m<sup>3</sup> ur zegoen. Beraz, lau egunetan ia 72.000 m<sup>3</sup>-tan gehitu da Urkuluko ur bolumena.

Orain artean 99ko udazkena nahiko lehorra izan da baina azkenengo astebukaeran egindako euria dela-eta urtegiak berriz ha-

si dira betetzen. Urkuluko uraren maila dexente jeitsita egon arren Ur Kontsorzioaren esanetan ez dago larritzeko arrazoirik. 1990 eta 1995 urteetan uraren maila aurtengoa baino bajuagoa zen, uda eta udazken lehorrak egin baitzituen. Iaz, berriz, euri ugari izan zen, hori dela eta urtegia %93 zegoen beteta.

Urkuluko urtegiak Eskoria-tza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati, Soraluze, Elgeta eta Antzuolako ur beharrak asetzen ditu. Guztira 69.708 herritarri ematen digu eguneroko beharretarako ura. Azken urteotako datuen arabera ur kontsumoak ere gora egin du.



Urkulu  
%59,68  
zegoen  
beteta  
pasa den  
asteartean

## Paketeria ikastaroa merkatarientzat

Eskoriatzako Udalak antolatu eta Loramendi euskara elkartearen laguntzaz paketeria ikastaroa emango da merkatarientzat. Helburua, saltzen diren produktuak modu atsegin eta erakargarrian paketatzen ikastea da, produktuaren arabera, urte sasoiaren arabera, ospatzen dugunaren arabera... paketeak ezberdina izan behar baitu. Paketea behar bezala egiteko papel mota ezberdinak eza-gutzen, apaingarriak ezagutzen, laxo mota ezberdinak egiten... irakatsiko da. Ikastaroan parte hartzen duten merkatariek ekarritako produktuak erabiliko dira. Neurri, itxura, pisu... ezberdineko produktuak batuko dira sobre, poltsa, eta papel mota ezberdinak erabiliz. Ikastaroan erabiliko den hizkuntza, bestalde, euskara izango da. Izena lehenbailehen ematea komeni da 943 77 09 70 telefono zenbakira deituaz edo Loramendiko txokora etorriaz. Ikastaroa, azaroaren 22tik 26ra izango da, arratsaldeko 2,15etatik 4,15etara. Parte hartzaile bakoitzak 3.000 pezeta ordaindu beharko du.

### ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

### ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 943 79 02 24  
ARETXABALETA

### San Migel erretegia

Apotza auzoa, 23  
Eskoriatza • 943 71 48 71



### Zubia Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

## Negu kulturala 99 programa

Seguruasko datorren astean kaleratuko da aurtengo negu kulturala programa. Iazko ekintza gehienetsuenez gain berrikuntza ugari dakartza 1999ko programa honek.

Iazko legez, umeentzat Poxpolin Park izango da kiroletxean. Aurten, gainera, gurasoen txokoa egongo da, baita ileapaindegiaren tailerra ere. Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak ere "Plisti plaus-ta" antzezlan berriarekin etorriko dira ume eta gaztetxoek gozamerako. Aurreko urteetan gazteen-

tzat ezer ez dela egon ikusita, aurten "Negu Gaztea" antolatu da. 12tik 16 urte bitarteko gazteek hainbat tailer izango dituzte aukeratzeko: makilajea, gorputz-espresioa, malabarrak eta serigrafia. Abenduaren 29rako Donostiara txangoa ere jarri da.

Hauetz gain, urtero bezala, dendariak eskaparate lehiaketan parte hartu ahal izango dute. Herritar guztiek bestalde, Aretxabaletako postalak jasoko dituzte etxeko postontzian.



Umeentzat Poxpolin Park egongo da eta aurten gazteentzat "Negu Gaztea" antolatu da

## Kuadrilen arteko jolasak

Euskal presoak Euskal Herrira plataformak datorren abendurako kuadrilen arteko jolasak antolatu nahi ditu. Jolas hauekin presoak Euskal Herrira ekar daitezzen eskatu eta horren aldeko giroa sortarazi nahi da herrian.

Horretarako herriko kuadrila eta orokorrean herritar guztien parte hartzea eskatzen du plataformak. Zaku karrera, arto kazkara batzea, sokatira, txingak eramatea eta beste hainbat euskal jolas egingo dira. Eguraldi ona eginez gero, Durana kalean edo Herriko plazan egingo lirake eta txarra izanez gero, Iturrigorri frontoian. Asmoa, jolasok, neska-mutuez osatutako kuadrilen artean egitea da. Plataformako kideen esanetan lehenbailehen izenak ematea komeni da, denboraz eta ondo antolatu ahal izateko. Izenak Arlutz tabernan eman daitezke.

## "Zu bezalako haurrak" lehiaketa Unicef-en eskutik



1999ko azaroaren 20an Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren X. Urteurrena ospatuko da. Iaz, "Haurren Ahotsa" izeneko programa atera zuen Unicef-ek eta bertan, Euskal Herriko 25.000 haurrek parte hartu zuten euren eskubideen alde

botoa emanez, Aretxabaletan %64,5ek.

Kanpaina honen ostean, ikastetxeek eskubide zein gi-

za baloreen aldeko jarrera daukatela antzeman zen. Hori dela eta "Zu bezalako haurrak" I. lehiaketa antolatu da eskubide eta giza baloreetan heitzeko programa barruan. Unicefen esanetan haurren partehartzea sustatu nahi da, eskubide horrek ikasgela gainditu eta beren gizartearekin arduratsuak diren gizaki gogotsu, eta konzienteak heziz.

Lehiaketak bi atal ditu. Batetik, lehen irakaskuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako haurrei zuzendutako idazlan lehiaketa antolatu da, haurren eskubideei buruzko idazlanak jasoko dira. Bestetik, bigarren irakaskuntza eta batxilergoko gazteei zuzendutako argazki lehiaketa dago. Ikasleek, argazkien bidez, euren eskubideen ikuspegia eguneroko bizitzan adierazi beharko dute. Lanak abenduan zehar Unicef-eko bulegoan aurkeztu behar dira.

**IBARRA**  
 Tabakoa eta ikasmateriala  
**ESTANKOA**  
 Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

**REGIO**  
  
**optika**  
 Loramendi, 10  
 ☎ 943 79 98 21

**ANDRA MARI**  
 Aholkularitza  
 - Fiskala  
 - Kontablea  
 - Juridiko/laborala  
 Andra Mari Auzunea, 3  
 ☎ 943 79 29 26

Izozkiteki-Gozotegia  
**IZOZKITEGI**  
 Otalora, 11  
 Tfnoa: 943 79 93 58  
 ARETXABALETA

# Jose Mari Segovia

## 12 urte udal aparejadore lanetan

Arrasaten bizi da baina seguruasko Aretxabaletako kale eta hiriztatze lanei buruz gehien dakiena izango da. 12 urte daramatza Aretxabaletan udal aparejadore lanetan. Hirigintzako lanei bakarrik ez, herritarren galdera eta kexei aurre egitea ere tokatzen zaio eta berak dioenez psikologia ere ikasten da lan honetan.

**- Zenbat urte aparejadore lanetan?**

- Hogeitik gora. Karrera bukatu ostean soldadutza egin eta Oñatiko Umerez enpresa eraikitzailean hasi nintzen. Han ia hamabi urte egin nituen eta ondoren udal aparejadore lanetan Aretxabaletan, beste horrenbeste.

**- Batean eta bestean lan egiteko era ezberdina al da?**


- Guztiz ezberdina. Enpresa eraikitzaile batean ibiliz gero, obrari dagokion arazoak konpondu behar dira, arazo puntualak. Administrazioan lan eginda, berriz, askotan arazo pertsonalak konpondu behar izaten dira, auzokideen arteko arazoak esaterako.

**- Zein da zure eguneroko lana?**

- Egunaren zati handi bat herritarren kontsultak asetzen pasatzen dugu. Jendaurreko ordutegia 11etatik ordu 1etara eta 3retatik 5etara da, herritarrek euren galdera, iritzi edo kexak agertarazi ditzaten. Honez gain planeatze lanak, eraikuntza-lan nagusiak eta zenbait obretako zuzendaritza lanak ermaten ditut. Herriko beste proiektu eta lan batzuk daramatzaten teknikarien eta udaleko zinegotzien artean bitartekaria ere banaiz.

**- Udal aparejadore ikuspuntutik nola ikusten duzu Aretxabaleta?**

- Hirigintza alderditik begiratuta eta bailarako herriekin konparatuz



**“Hirigintza alderditik begiratuta eta bailarako bailarako herriekin konparatuz oso herri orekatua da”**

oso herri orekatua da. Kale-sarean hutsunea geneukan orain urte batzuk, herria, kale bakarrean, Araba Ibilbidean oinarrituta baitzegoen. Ondoren Santa Kurtz kalea egitea lortu zen eta azkenengo lorpena Errekabarren kalea Loramendiz lotzea izan da. Errepide bakarrean oinarritutako herria izatetik, lauki erako kaleetan oinarrituta haziz doan herria izatera pasatu da.

**- Zerbait falta al zaio herriari?**

- Nire ustetan gizarte eta kulturarako eraikuntzak falta zaizkigu. Herritar batzuen esanetan zonalde berdeak falta dira eta egia da herri erdigunean ez dagoela, baina ez daukagu horretarako zorurik. Egin beharrekoak kanpo aldean egin beharko dira. Aparkalekua ere arazo bihurtu daiteke, gero eta kotxe gehiago baitago. Egin dezakegun bakarra, eraikitzen ari diren etxebizitza bakoitzeko aparkaleku bat eta erdi egin dezaten eskatzea da. Herri erdigunean ordea, ezin da ezer egin, leku gutxi daukagu eta egin beharrekoak eginda daude.

**- Momentu honetan zenbat lan daude martxan?**

- Udalaren esku dauden hainbat lan daude martxan: kiroletzeko zubitik hasi eta Olazabal lantegiraino doan pasealekuaren hiriztatze lanak, Gipuzkoa plazako obra, Baintxeko industrialdea eta Loramendi kaletik Baintxera joango den bidearen lanak. Galartzako dorretxea ere bukatu berri dago.

**- Herritarren kexa ugari heletzen al da zuregana?**

- Bai, era guztietakoak gainera. Herritarrak askotan ez daki nora jo eta hirigintza sailera jotzen du beti. Sarritan, auzokideen arteko arazoak izaten dira eta udalak epaile lana egin behar duela iruditzen zaie. Hau ez dela horrela azaltzen saiatzen gara baina beti dago haserre joaten den norbait, herritar guztien nahiak ezin baitugu asetu. Beste era bateko kexak, obrek sortutako eragozpenengatik izaten dira. Azkenik, Udalak ematen dituen zerbitzuak direla eta, ura, argia, eta estolderia, sortzen diren kexak daude.



# NISSAN PRIMERA BERRIA



5 urteko bermearakin

Km. mugagabeak

NBA Balazta bizkorrak

Xenon argiak


ABS etxetik

Klimatizazioa



ALDIBI · Olaso pol., 23 · Tel.: 943 74 20 37 · ELGOIBAR

ALDIBI · Zigarrola, 1 · Tel.: 943 71 20 02 · ARRASATE



**“Euskara batua ikasten dugu, gure hizkuntza garatzeko eta bere erabilera finkatzeko eta bermatzeko, baina noiz arte mantenduko dira tokian tokiko ezaugarriak?”**

## Bixarko euskerie

Ene ume, erderaz jakin ez eta hau oingo euskeriau ezin entendi!

Euskara nolabait esateko, badao bere lekua hartzen (lan egin behar bada oraindik ere), arlo ezberdinetara zabaltzen doa, herrialde baten hizkuntza, ahozko hizkuntza bakarrik izatetik, lan tresna eta garapena izan duen eta gizartearen garapenari jarraitzen dion hizkuntza bihurtu da.

Euskara batua dugu, bere arau, hitz berriekin eta hitz teknikoekin. Ikasteko eta erabilera bateratu bat emateko beharrezkoak diren pausuak. Hitz berriak egunero, progresua delakoari jarraitzeko eta gauza berri eta moderno guztiek euskaraz bere ize-na izan dezaten.

Gizarteari berari begiratuta, belaunaldi batetik bestera izugarritzako aldaketa egon da. Teknologia dela eta urte asko ez direla izaniko bizi modua atzean geratu da, baina berarekin batera hizkuntzaren zati bat ere bai.

Euskara lurralde eremu txiki batetako hizkuntza bada ere, hizkuntza aberatsa da. Herri batetik besterako aldaketak, esaeratan, tonuetan, aditzetan... aberats

egiten dute. Hizkuntza ezaugarriak oso ezberdinak dira kilometro gutxiren barruan. Euskara batua ikasten dugu, gure hizkuntza garatzeko eta bere erabilera finkatzeko eta bermatzeko, baina noiz arte mantenduko dira tokian tokiko ezaugarriak? Nola ikasi horiek? Nola mantendu? Ezaugarri horiek azken finean ahozko hizkuntzan bakarrik gordetzen dira eta konturatuz gero, gure gurasoen belaunalditik gaurkora, dagoeneko, hizkuntz ohiturak oso ezberdinak dira.

Gizartea eta garapenak ezarritako normak izango dira, euskararen garapen eta bizi iraupe-nerako. Edozein arlotan euskara erabilgarria izateko. Baina mar-txa honetan euskara hizkuntza hotz bat izatera ailegatuko da, komunikazio tresna bat, denontzako berdina, erabilgarria, hori bai gainontzeko hizkuntzen pa-rekoa, baldintza berdinetan apli-kagarria. Beharbada hau, aipatu-tako euskara aberatsa baino aberasgarriagoa izango da. Baine ia ezta bakotxan euskerie izengo.

Leire Okaranza

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
Fax.: 943 71 24 59  
ARETXABALETA

*Bereziki: Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia*

**IMANOL  
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

**Etxabe  
harategia**

Durana 4  
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE  
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57



Lehenengo aldiz Aretxabaletan pentsakera, ohi-tura eta izaera ezberdinetako taldeak, eta azken finean jendea, lema bakarraren aurrean elkartu da, euskal presoak Euskal Herrira. Pasa den martxoan sortu zen taldea eta geroztik hainbat ekintza antola-

1998ko abenduaren 31rako euskal presoak Euskal Herrira aldarrikapenarekin herriko plazan biltzeko gonbidapena jaso zuten herritarrek. Udalak egin zuen deialdia, baina jendea bildu ere bertan.

Honen ostean, euskal presoaren arazoa, politikarien eskuetatik herritarren eskuetara pasatzeko garaia heldu zela iruditu zitzaizkien udalaren aldean egon ziren alderdi politikoetako eta Senideak eta Gestorakeko ordezkariak. EAJko Koldo Azkoitia, EAKo Jose Mari Armentia, HBko Luis Errasti, Gestorakeko Iñaki Iturri eta Senideakeko Mari Asun Bengoa izan ziren bildutakoak. Bildu, pentsatu eta egin. Herriko talde eta elkarte guztiek batzar baterako deialdia jaso zuten martxoaren 15erako. Ez ziren guztiak agertu bertara baina agertutako guztiak ados azaldu ziren.

**Presoen egoera gero eta larriagoa**  
Bilera honetan euskal presoaren

egoera hobera joan beharrean okerrera zihoala argitu zen, Espainiako gobernuak ez baitu presoaren inguruko legea betetzen. Legearen arabera, euskal presoek Euskal Herrira egoteko eskubidea dute,

**herritarren  
indarra batzea  
eskatu zen,  
politikariek lortu  
ez zutena  
herritarren  
ahotsek lor  
zezaten**

senideengandik hurbil; gaixo larriak jotako presoak, askatuak izan behar dute; zigorraren 3/4 beteak dituztenek, baldintzapeko askatasunean egon behar dute eta presondegietan presoaren giza eskubideak errespetatu behar dira. Honen

dituzte herrian, baina jende ugari parte hartu ere beraietan. Azkenengoa Asensio, Muru eta Kurtzebarri mendietara egin zen irteera izan da. Ez dakite zerbait lortuko duten baina euren eskuetan dagoen guztia egiteko gertu daude.

aurrean herritarren indarra batzea eskatu zen, politikariek lortu ez zutena herritarren ahotsek lor zezaten.

**Kepa Urra buruan**

Preso guztien egoera hobetu nahi bada ere, Kepa Urra preso atxabaltarra dute askok buruan. 8 urte daramatza kartzelan, gehientsuenak Puerto de Santa Marían, Cadizen, eman ditu. Orain ordea Valdemoron, Madrilen dago, 480 km.ra. Bai, hurbilago, baina orain urte bete Langraitzen 40 km.ra zegoen. Bost hilabete besterik ez zituen iraun. Plataformatik Ruth Alonso, "Juez de Vigilancia Penitenciaria"ri eskutitza bidali zitzaion, ez zen erantzunik jaso.

Kirol taldeak, kultura elkarteak, musika elkarteak, gastronomi elkarteak, alderdi politikoak, gizarte taldeak... ez da inor falta plataforman honetan. Eta hala balitz, ateak zabalik dituzte falta den edozein hartzeko talde honetan.

Plataformak hobeto funtziona zedin eta talde guztietako ordezkariak biltzea oso zaila izango litzatekeela ikusirik, mahai iraukorrara osatzea erabaki zen.

Zenbait taldetako ordezkariak dira eta astero biltzen dira ekintzak antolatu eta egindakoak baloratzeko. Hona hemen mahai iraukorreko partaideak.

*“Herriko beste elkarte gastronomikoekin bazkari bat antolatu nahi genuke, preso politiko ohi, senideak eta lagunak elkartzeko asmoz”*

**Mikel Uribetxebarria Aldalur**  
San Kristobal elkarte (Larrino)

*“Euskal Herriko gizarteak garbi esan du euskal presoak Euskal Herrian nahi dituela, honen inguruan ez dago atzerapen gehiagorik. Egoera honen aurrean plataformak dinamika iraunkor bat eraman behar du eta horretarako ezinbestekoa da sektore desberdinen inplikazioa eta konpromezua lortzea. Herritar guztien elkarlanetik lortuko baitugu soilik preso guztiak Euskal Herrian ikustea”*

**Axu Cardenal**  
Gestorak

*“Herritarren kontzientziazioa landuz elkarlana sortu behar dugu euskal presoak euskalerriratu eta etxeratzeko”*

**Joseba Larrinaga**  
Baietz Fundazioko komitea

*“Senide eta lagunartetasun distantzi mingarria gainditu eta Euskal Herriko eraikuntzan parte har dezaten beharrezkoa da etxera ekartzea”*

**Mari Asun Bengoa**  
Senideak

*“EPEHrako plataformak plurala behar du izan, bere helburu bakarra, hots, euskal presoen euskalerriratzea, edozein ideologiaren gaineratik dagoen eskubidea baita. Horregatik Aretxabaletako talde eta pertsona guztiei zabalik dago”*

**Mikel Uribetxebarria Barrena**  
Aretxabaletako Komunikabideak-L.

*“Dugun helburua lortzeko, herritarren sentsibilizazioa eta parte hartzea beharrezkoa da”*

**Eneritz Urrutia**  
Loramendi euskara elkarte

*“Euskal Herriko egoera hobetu da baina euskal presoek barruan eta oso urrun jarraitzen dute; herriaren borondatea Euskal Herrira ekartzea da, beraz, lana gogor eta serio egin behar dugu”*

**Felis Beltran de Heredia**  
Elkarri

## Orain arte egindako




Martxoaren 27a, larunbata. **Manifestazioa**

Plataformak antolatutako lehenengo ekintza honetan herritarren parte hartzea haundia izan zen. Herriko talde gehienak izan ziren bertan.



Maiatzaren 7a, ostirala. **Giza katea**

Konpromezu eguna antolatu zen Euskal Herri mailan. Plataformak giza katea egitea erabaki zuen eta 200 pertsona inguru bildu ziren herriko plazan.



Maiatzaren 15a, larunbata. **Sinadura bilketa**

Euskararen eguna aprobetxatuaz, euskal presoak Euskal Herriratzeko eskaera bultzatzeko sinadura bilketa sinbolikoa egin zen.

## zenbait ekintza



Irailaren 25a, larunbata. **Kontzentrazioa**

San Migeletan, kontzentrazio isila egin zen herriko plazan. Ekintzari herriko lau bertsolarik eta Juan Luis Lekunberri musikariak eman zioten amaiera.



Urriaren 7a, osteguna. **Hitzaldia**

Mitxel Sarasketa, preso ohi eibartarra, presoan egoeraren berri ematera etorri zen. Berarekin IRA-ko preso ohi bat ere egon zen bere iritzia ematen.



Azaroaren 7a, igandea. **Mendi irteera**

Kurtzebarri eta Asensio-Muru mendietara egin zen irteera. Jende ugari animatu zen mendi tontorretan EPEH izara jartzera joatera.



**Aurrera begira ekintza gehiago**

Inork ez daki noiz arte jarraitu beharko duen plataformak lanean. Badakite arazoa ez dela ez bihar ezta etzi ere konponduko, beraz, lanean jarraitzeko prest daude. Abendura begira hainbat ekintza dabilte buruan. Pilota partidu profesionala, herri jokuak kuadrilen artean, musika taldeek antolatutako zerbait, gastronomi elkarteetan laguntzaz beste zer edo zer... Momentua heldzean emango dute denaren berri.

**Izarak balkoietara**

Plataforma herriko taldeek sortu eta mantentzen dute bizirik. Horretarako ordea behar beharrezkoa da herritarren laguntza, herritarren partehartzea. Orain arte egindako ekintza guztietan jendearen

partehartzea handia izan da. Plataformako mahai iraunkorra oso pozik dago baina oraindik ekintza asko egongo direla diote, jendearen partehartzea beharko duten ekintzak. Horien artean EPEH izarak balkoietan jartzea dago. Udaletxean badago. Kurtzebarri, Asensio eta Muru mendi tontorretan ere bai. Herriko hainbat balkoietan ere ageri dira baina oraindik beste askotan falta dira.

Inork ez daki euskal presoak Euskal Herrira ekartzea lortuko duen herri ekimen honek, ezta Kepa Urria herritik kilometro gutxira ikusiko dugun ere. Argi dago plataformak, herriaren eskuetan dagoen guztia egingo duela eta argi dago, herriak lortzen ez duena ez duela beste inortxok lortuko.

**Plataforman sartutako taldeak:**

• Amnistiaren Aldeko Batzordea • Akordeoi Orkestra • Aratz • Aretxabaletako Abesbatza • Aretxabaletako Komunikabideak-L • Argazki Taldea • Arlutz Xake Taldea • Baietz Fundazioko Komitea • Batzoki Elkarteak • ELA • EA • EAJ • Ezker Batua • Eguzki Alde Elkarteak • Elkarri • HB • Hiruatx • Jarrai • Leizarra Musika Eskola • Loramendi Dantza-Txistu Taldea • Loramendi Euskara Elkarteak • Murruxio Mendizale Elkarteak • Okila Egurra Lantzen Elkarteak • Ortzadar • Page • Parrokiako Pastoral Kontseilua • San Kristobal Elkarteak • Saretxo • Senideak • UDA • Udaletxea • Uratz Alde Elkarteak • Urbaltz Elkarteak • Zاراia Mendizale Taldea •

## Atxabaltarrek marka guztiak hautsi dituzte Behobia-Donostian

Azaroaren 14an ospatutako Behobia-Donostia lasterketa ospetsuan 37 atxabaltarrek hartu du parte. Iaz antzera proba popularra egitera herritar ugari animatu da, eta adin guztietakoak gainera. Ramon Jausororen, Joseba Larrinagaren (Kepa Urria) eta Alfonso Luelmoren denbora onak aipatu beharrekoak dira, baina gainontzeko guztien esfortzua ere ezin da alde batera utzi.

Ondorengo datuak Fortuna club-ak utzitakoak dira. Club honek jakinarazi digunez, datuak behin-behinekoak dira eta erreklamaziorik egin nahi izanez gero, postaz ondorengo helbidera zuzendu behar da: 856 postakutxatila/20080 Donostia. Bertan izena eta bi abizenak adierazi behar dira, dortsalaren zenbakiaz batera, eta egindako ustezko denbora zein izan den adierazi.

### Sailkapena:

44	Ramon Jausoro	1:07:29	4626	Iñigo Berridi	1:39:02
104	Kepa Urria (presoa)	1:09:45	4723	Jose Mari Guridi	1:39:27
272	Alfonso Luermo	1:14:31	4978	Iñaki Etxebarria	1:40:35
1363	Antonio Herruzo	1:24:00	4995	Floren Elortondo	1:40:38
1435	Kepa Antxia	1:24:21	5379	Jose Revuelta	1:42:18
1805	Iñigo Gastañaga	1:26:23	5620	John Nelson	1:43:13
2074	Josu Urkia	1:27:40	6272	Iurgi Etxebarria	1:45:38
2176	Jesus Lonbide	1:28:13	6276	Ander Hernandez	1:45:39
2185	Jose Miguel Elizburu	1:28:14	7315	Aitor Bengoa	1:50:34
2442	Aitor Kortabarria	1:29:18	7677	Jose Luis Bengoetxea	1:52:36
2456	Axel Lezeta	1:29:23	8081	Rosa Ojuel	1:54:57
2546	Ekaitz Aranzabal	1:29:47	8096	Javier Martinez	1:55:01
2577	Alberto Perez	1:29:53	8565	Ainhoa Murgoitio	1:58:33
2793	L.M. Azkargorta (presoa)	1:30:53	8569	Aitor Zaloña	1:58:36
3174	Angel Mari Etxabe	1:32:31	8898	Mertxe Lopez	2:01:24
3691	Mikel Iturbe	1:34:58	8900	Jose Javier Irure	2:01:25
4129	Javi Garcia	1:36:55	8903	Martin Perez	2:01:27
4490	Inaxio Garro	1:38:30	9039	Amaia Garcia	2:02:53
			9041	Anabel Aranzadi	2:02:54

## Etxeko garaipena heldu da

Joan den domekan UDAko prefereenteak etxeko bere lehen garaipena eskuratu zuen Hernaniren aurka 3-0 nagusitu ondoren. Goleatzaileak Iker Zubiria, Eriko Garcia eta Igor Bastardo izan ziren. Partidu polita eskaini zuen taldeak, eta etxekoek sartutako golei esker pozik gelditu ziren bertan bildutako zaletuak, baita zuzendaritza, entrenatzailea, eta jokalaria ere. Dena dela, aurrera begira gogor jarraitu beharko dute, orain daukaten 8. postutik gora egiteko. Horretarako, Anaitasunaren aurkako hurrengo partiduan garaipenaren bila abiatuko da Iñaki Cegiagaren taldea.

Lehenengo mailako erregionalak, bestalde, galdu egin zuen Zumaiakoren zelaian 3-0ko emaitzaz. Daniel Armentiarren taldea 11. postuan dago 9 punturekin.

Liga Vascako jubenilek gol gabeko partiduan berdinketa lortu zuten Batasunaren zelaian. Taldeak 4. postuari heldu dio klasifikazio orokorrean, guztira 19 punturekin. Laugarren postuan egon arren, lehenengoarengandik puntu bakarrera mantentzen da.

Gainontzeko futbol taldeetatik bakar batek lortu zuen garaipena, lehen mailako kadeteek hain zuzen ere, emaitza UDAn 5 Aloiñak 2 izan zen.

“ A R I N S A ”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"  
Tfnoa: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19  
ARETXABALETA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa** gizarte-ekintza

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea  
☎ 943 79 81 78 mobila: 670997274  
ARETXABALETA

*Okindegia - Gozotegia*

*Aretxabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

# Iñaki Etxeberria

## Leixargarateko txabolako arduraduna

Leixargarateko txabolako arduraduna izan da Iñaki Etxebarria azken bi urteotan. Gabonetan utziko du kargua, baina oraindik ez dute ordezkorik aurkitu. Hainbat ate jo arren, kandidatu berririk ez da agertu. Iñakik norbaitek jarraituko duen esperantza du, "baina ez da erraza izango", azaltzen du. Txabolak arrakasta haundia du, aste-bukaeretan batez ere, baina nor izango da hurrengo arduraduna?

• **Iñaki, zergatik hartu zenuen Leixargarateko txabolaren ardura?**

Lagunek animatuta. Nik barenen ohitura txabolara joateko eta aurreko arduradunari txanda bukatu zitzaionean neu hasi nintzen.

• **Eta zergatik utziko duzu?**


Nik bi urterako konpromezua hartu nuen. Horrez gain, nekatuta bukatu dut, eta gainera, nahikoa egin dudala uste dut.

• **Zer suposatu du txabolako arduradun izateak?**

Lan haundia izan ez arren, egu-nero daukazu txabola buruan. Astero-astero jende berria joaten da txabolara eta ni arduratzen naiz giltza emateaz eta gero hartzeaz. Horrez gain, txabolaren mantenimentua dago, noizean behin egurra moztu eta batu, butanoa jaso... Bestelako burukominak ere beti sortzen dira, adibidez, txabolan zeozer apurtu dela eta.

• **Egurra batu aipatu duzu.**

Bai, urtero Gatzagako Udalari baimena eskatzen diogu bere basoetan egurra batu ahal izateko. Honek non moztu eta zein zuhaitz moztu adierazten digu. Mesede horregatik, Gatzagako Udala eskertu beha-



**“Txabolarako arduradun bat aurkitzeko ahaleginetan dihardugu”**

rean gaude.

• **Lan guzti hori egiteko, ordea, laguntzarik izango duzu.**

Bai, ni arduraduna naizen arren, koadrila bat dago atzetik. Egokiena arduradun bat egotea da, baina honek atzetik laguntza izan behar du. Egurra batzeko, esaterako, taldetxoren bat arduratu beharko litzateke.

• **Nolako erantzunkizuna izaten dute txabolara joaten direnek?**

Normalean jendea astebukaerak pasatzera joaten da eta euren ardura txabola aurkitu duten bezala uztea da. Hala ere, badira koadrila batzuk egurra biltzeaz arduratzen direnak.

• **Bi urte hauetan konponketa asko egin da txabolan?**

Ni sartu nintzenez txabola mar-

gotu eta eguzkitako plakak jarzen aritu giren. Geroztik konponketa txikiak beti egin dira. Horrez gain, egurtokiko leihoak aldatu dira.

• **Zeozer gelditu da egiteko?**

Teilatua konpondu beharko litzateke hurrengo batean, baina orain ez dago dirurik.

• **Dirulaguntzarik jasotzen da txabolarako?**

Ez dago txabolara zuzendutako dirulaguntzarik edo partidarik udaletxean. Dena dela, obra konkretuak egiteko proiektua eta aurrekontua aurkeztu izan dira, eta horrelakoetan jasotzen da dirua.

• **Urtean zehar zenbat lagun joaten da txabolara?**

Kopurua esaten ez nuke jakingo, baina asteburu guztiak daude okupatuta eta batzuetan astean zehar ere bai. Hemendik eta gabonetara bitartean dena hartuta dago, eta nik datorren urtean jarraituko ez duenez, ez da egutegirik zabaldu. Dena dela, 2000rako eskariak ere jaso ditut.

• **Nola ikusten duzu ordezkari berria bilatzeko ahalegina?**

Ate batzuk jo ditugu eta oraindik fruiturik ez dugu jaso. Norbaitek irango du. Lerro hauek erabiliko ditut mezua bidaltzeko: txabolako arduradun izan nahi duenik balego jakinazari dezala laster. Txabola uztea pena bat izango litzateke, batez ere, duen arrakastagatik. Asteburuoro okupatuta dago, eta gainera, lekua hartzeko azkar ibili beharra dago. Ordezkaritza bat bilatuko dugu, hori ziur.

• **Arduradunak jasotzen du inolako konpentsaziorik?**

Ez, noizean behin afaritxoren bat edo beste, hori da guztia. Dena dela, nik uste dut lan honek borondatezkoa izaten jarraitu behar duela.

*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano  
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia  
Tel.: 77 11 30  
ARRASATE

# focus



**ORAIN**  
16i - 100 cv  
20i - 130 cv  
TDi - 90 cv

Europar bere kategorian txoke eta estabilitatean liderra

DEBA GARAIKO  
KONTZESIONARIO  
OFIZIALA

**MUGARRI**



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tfnoak.: 943 790744 / 943 790745





## 60-61 denboraldiko taldea

Denboraldi hasieran aurreneko postuetan ibili baziren ere, Deban, Bernardino lesionatu eta poliki-poliki atzeratzen joan ziren. 60-61 futbol denboraldia zen eta 1. Erregionalean jokatzeko UDak. Garai hartan ez zegoen primarik baina 15 pezeta ematen zitzaizkien partidu ostean otartekoa eros zezaten. Gainontzeko diru guztia, handik edo hemendik zetorrena, "kaja jugador" izeneko kaxan gordetzen zen. Denboraldia amaitzean, berriz, San Juan bezperan hain zuzen, zentru katolikuan afaria egin eta kaxa honetako dirua banatzen zen. 400-500 pezeta jasotzen zituen bakoitzak, nahiz titularra izan nahiz ordezkaria, entrenatzaileak, berriz, bikoitza.

Goiko lerroan eta ezkerretik eskumara: **Beltran de Guebara, Angel Etxabe, Andoni Antxia, Bernardino Oyanguren, Alfonso Eraña, Jose Antonio Elortondo, Jacinto Azurmendi** (entrenatzailea).

Beheko lerroan: **Agustin Urrutia, Lizarralde, Josetxu Bengoa, Jose Luis Aretxaga, Remigio Gaztañaga.**

*Argazkia: Remigio Gaztañaga*

*Informazioa: Pello Zubizarreta, Andoni Antxia eta Josetxu Bengoa.*



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**GARBITU S.  
COOP.  
Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

**M**obiliario  
**ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABAETA

**ITURGINTZA**

**J.J**

Jose Jabier Irure

**URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA**

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87



## LANA

- ◆ 5.OHOko ume bati klase partikularrak emateko pertsona behar da. Tfnoa: 943 77 02 92.
- ◆ Emakume bat behar da goizetan bi orduz umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 943 79 33 19.
- ◆ Emakume bat behar da haurra zaintzeko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 943 79 37 03 (19:00etatik aurrera).
- ◆ Neska prest zapatu eta domeketan lan egiteko. Tfnoa: 943 79 03 37.
- ◆ Ingelesko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 943 79 78 35.
- ◆ Arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79 00 69, 15:00etatik 18:00 etara.

### Lan deialdi publikoak

- ◆ Bergarako Udalak udaltzaina behar du. Oinarriak: GAO 99/10/21
- ◆ Zumarragako Udalak arkitektoa, administraria, liburute-giko arduraduna eta udaltzaina behar ditu. Oinarriak: GAO 99/10/20
- ◆ Irungo Udalak artxiboko



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

laguntzailea eta osasun heziketako teknikaria behar ditu. Oinarriak: GAO 99/9/29

◆ Aiako Udalak operari bat behar du. Oinarriak: GAO 99/10/22



## DENETIK

- ◆ Aretxabaletako kale batean boligrafo dotorea topatu da. Tfnoa: 943 79 73 84 (gaueko 8etatik aurrera deitu).
- ◆ 7tik 11 urte bitarteko ume bantentzako mountain bike bizikleta salgai. Prezioa, 15.000 pta. Tfnoa: 943 77 03 98.
- ◆ Rossignol markako snow board tabla salgai, fijazio eta guzti. 1,34 neurria dauka, 10-15 urte bitarteko gaztearentzat. Tfnoa: 616 286 842 (gaueko 8etatik aurrera deitu)
- ◆ "Spaniel breton" arrazako 3 hilabeteko 2 txakur salgai. Tfnoa: 943 79 19 63.
- ◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 71 49 15, 21:00etatik aurrera.

- ◆ Txakurra eramateko erremolke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.
- ◆ Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko PVCzko kaxa salgai. Tfnoa: 943 79 23 69.
- ◆ Urrezko zintzilikarioa galdu da. Inork aurkituko balu 943 77 17 42 telefonora deitu.
- ◆ Kawasaki GPC 400 salgai, egoera onean. Tfnoak: 943 73 18 72/73 12 82.
- ◆ Pastor Aleman txakurkumeak salgai. Pedigriarekin. Tfnoa: 943 85 32 44 edota 696 057 346.



## ETXEBIZITZA

- ◆ Aretxabaleta edo Arrasaten langile batek gela bat behar du bizitzeko. Tfnoa: 607 798 723
- ◆ Garajea salgai Murubide auzoan, lehenengo solairuan. Tfnoa: 943 79 32 73.
- ◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berritzeko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.
- ◆ 57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ Etxe erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.
- ◆ Etxe salgai Aretxabaletan. 72 m<sup>2</sup>, zentrikoa eta berriztua. Garajea aukeran. Tfnoa: 943 77 02 27.

**ARETXABALETA**  
**ITURGINTZA**  
Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

**FELIX PAGALDAY**  
**SUNZUE S.A.**  
Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56

**Maritxu**  
**Mertzeria**  
Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea  
**Angelines**  
**AUTOZERBITZUA**  
Mitarte, 16 • 943 79 61 42

# Kirola eta parranda



Behobia-Donostia pasatu ostean kirola dabil askoren ahotan. Egin ere lasterketa bikaina egin zuen herriko hainbat korrikalarik **Ramon Jausorok** esaterako, 44. postuan sartu zen bera. 37 korrikalari joan ziren gure herritik, horietatik 5 neskak. Ezingo naiz denen izenak esaten hasi bestela ez dut bukatuko eta. Dena dela larri bukatu zuenenbat ere izan zen. Bukatzea ere ez da gutxi. Behobia-Donostia gutxi iruditu eta maratonia egitera New York-era joan zitzaizkigun **Asier Aranguren** eta emaztea. Ez dakigu zenbagarren postuan sartu ziren baina bukatu behintzat egin zuten. Bueltatzen direnean galdetu beharko diegu zer nolako esperientzia izan den. Kirolarekin jarraituz, **Joxemi Elizburuk** agur esan dio txirrindularitzari. Profesional mailako kontratua bukatu eta berriro ez diotenean agurra esatea erabaki du.

Batzuk agur eta beste batzuk saria. Gara egunkariak afizionatueta lehen urtea egin duten txirrindulariei Gara saria eman zien. Ulma-Cegasa taldeko **Asier Atxa**, bosgarren postuan geratu zitzaigun. Ez dago gaizki.

Beste gai batzutara pasatuta **bailarako telebista** martxan jartzekotan omen dabiltzala esan didate. ETBn, Hitzaro programa aurkezten duen **Mikel Irizar** arrasatearra omen dabil bilerak egin eta bailarako telebista hau antolatzen. Ez dakit astirik izango dugun hainbeste telebista ikusteko. Nik behintzat atxalbatakoa ikusten jarraituko dut, atxabaltarrok bultzatu eta ikusten ez badugu nor ikusiko du ba? Gaizki esaka aritzeak bakarrik ez du balio, laguntza beharrean daudenean gainera...

Bueno eta udazken honetan kintto afariak ditugu barra-barra. Orain bi aste 73 an eta 75ean jaiotakoek izan zuten, pasa den aste bukaeran 77koek, oraingotan 76 eta 79koek eta hurrengoan 78 eta 74an jaiotakoek. Azken hauek, Errioxako Lantziego herrira omen doaz 25 urte betetzen dituztela ospatzera. Eta nire kintto afaria noiz? Ni, neu, hasi beharko naiz antolatzen, fundamento gutxi ikusten dut-eta. Baina afari honen aurretik beste bat dut egiteko, eh **Monika**? Bai, bai ez zait ahaztu parranda botatzekotan geratu ginela, beraz lehenbailehen egin beharko dugu. Zure begiekin eta nire berrikerarekin mutil bat baino gehiago hurreratuko zaigu, ziur nago.

## Liburutegiko txokoa

### BAZKIDE GUZTIEK, DENON HOBE BEHARREZ BETE BEHARREKO ARAUAK

#### Bazkide txartela:

- Mailegu-zerbitzua erabiltzeko, bazkide txartela aurkeztu behar da.
- Bazkide-txartela dohainik ematen da.
- Bazkide bakoitza da nor bere txartelaren erantzule. Txartela beste norbaiti utzi, eta beste horrek okerre-rako erabiliko balu, bazkideak berak ordaindu beharko ditu bere utzikeriak eragindako kalteak.
- Bazkide-txartelak berarekin dakar, nahitaez, arau guztiok bete beharra.

#### Maileguak:

- Bi liburu eraman ahal izango dira, gehienez, aldiko.
- Bi aldizkari eraman ahal izango dira, gehienez, aldiko. Aldizkari atera berririk ezin da eraman, atera berriagoa iritsi arte.
- Besteak eramandako liburu, aldizkari eta abar esku-ratzeko txanda hartu ahal izango da, bai liburutegian bertan eta baita telefonoz ere.

- Bazkideen esku dago *bazkideen eskariak* delako orria betetzea, besteak beste, aukeran dauden liburu, aldizkari eta abarren zerrenda osatzeko.
- Liburutegitik eramandako zernahi galtzen edo hondatzen duenak ordezeko berria erosi beharko du hila-bete baino lehen.

#### Epea:

- Liburuak itzultzeko epea hogeit eguneko da (20 egun) eta behin bakarrik luzatu ahal izango da. Luza-pena eskatu ahal izango da, bai liburutegian bertan eta baita telefonoz ere.
- Aldizkariak itzultzeko epea hiru eguneko da (3 egun): epe luzaezina.
- Itzultzeko epea amaitu ondorengo atzerapenak zigortu egingo dira. Oso berandutzen denari edota beti berandu dabilenari, bazkide-txartela kendu egingo zaio, eta mailegu-zerbitzua erabiltzeko aukera ukatu.

Joseba Lopez de Armentia

AZAROA

19

25

16-19

egukotxa

eguna

**KARTEL ERAKUSKETA**

Hiesaren astea antolatu da Gazte-txean. Hori dela eta kartel erakus-keta egongo da aste guztian zehar.

**EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA GASTEIZEN**

Gasteizko Principal Antzokian emanaldia eskeiniko du arratsaldeko 8retan.

**ARIZMENDI TOPAKETAK XIII**

Gizabideak antolatuta XIII. Arizmedi Topaketak egingo dira Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatean arratsaldeko 6retan.

20

18

zapatua

eguna

**HITZALDIA GAZTETXEAN**

Hiesaren inguruan antolatu den asteari amaiera emateko "HIESA zer da?" hitzaldia emango du Domi Korta, Arrasateko Hies Ekimena taldeko arduradunak. Arratsaldeko 7retan Gaztetxean izango da.

**GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO SAIOA BERGARAN**

Final laurdenetako bertso saioa Bergarako Udal Pilotalekuan gaueko 10etan.

**I. AEROBITOI POPULARRA ARRASATEN**

Lirain gimnasioak I. aerobitoi popularra antolatu du. Arrasateko Iturripe kiroldegian izango da arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara bitartean. Sarrera, parte hartzaileentzat 1.000 pta. izango da, aurrez Lirainen 800 pta., ikusleentzat 400 pta.

1974an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute azaroaren 27an. Aurten 25 urte betetzen dutela-eta Errioxan ospatzea erabaki dute. Lantziegon izango da bazkaria eta bertara joan nahi duenak lehenbailehen eman dezala izena Arlutzen.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

*Lyonel Arquero*

Dekorazioa:

*Soraya Arquero*



943 71 20 02

ITURGINTZA



URA, GASA ETA KALEFAZIOA

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**AZKARATE AROZTEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18 BERGARA  
943 76 47 19

ARETXABALETA  
943 77 01 24

**T X I L A R R A**

**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA

## lehiaketak

**BERTSO-PAPER LEHIAKETA**

Mutrikuko AEK-k XV. bertso-paper lehiaketa antolatu du. Kanpotarrentzat bi atal ditu, bata 15 urtetik 18 raino eta bestea 19 urtetik gorakoentzat. Bertsoen neurria eta gaia libreak dira. Kopuruak, berriz, honako hauek izango dira: 15-18 urte bitartekoentzat, gutxienez 4 bertso eta gehienez 6 eta 19tik gorakoentzat, gutxienez 6 eta gehienez 12. Sariak, lehenengo atalekoentzat, 20.000 pta. eta bigarren atalekoentzat 50.000 pta. Bertso paperak bidaltzeko azken eguna abenduaren 9a izango da eta helbide honetara bidali behar dira:

Mutrikuko AEK  
Frontoi kalea z/g  
20830 Mutriku

**AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA**

Bergarako Jardun Elkarreak Amodiozko Gutunen VIII. Berrigara lehiaketa antolatu du. 1985ean edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lanak euskaraz idatziak izango dira eta gutun forma izan beharko dute. Din A-4 orritan, eskuz, zein makinaz idatzi-ta aurkeztu ahal izango dira eta ezingo dute bi orrialde baino gehiago izan. Lanak aurkezteko azkenengo eguna 2000ko urtarrilaren 10a izango da eta helbide honetara bidali behar dira:

Amodiozko Gutunen VIII.  
Berrigara Lehiaketa  
Jardun Elkarrea, Juan Irazabal, z/g  
(Gartzela Zaharra)  
20570 Bergara


**BEHARREZKO  
TELEFONOAK**
**Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskalategia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarrea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

**Larrialdiak**

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**Garraioak**

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

**Galartza gertu-gertutik**

Atxabalta ezagutzen saioaren barruan auzoak ezagutzen jarraituko dugu eguakotzeko emisioan. Horrela biharko saioan Atxabalta telebistak herriko ipar mendaldean dagoen auzo batera egingo du bisita, Galartzara hain zuzen ere. Bertako auzoalkateak Joakin Urrutiak auzo honen inguruko

bitxikeria eta beste hainbat historiotoxo kontatuko dizkigu. Horien artean oraintxu inauguratutako Galartzako dorretxeak aipamen berezia izango du. Horrez guztiaz gain, auzoko baserriak banan-banan ezagutzeko aukera paregabea izango da, eta jakina, biztanlegoaren gorabeherak eta auzoaren historiotoxo ere ikusentzungo dugu bertan.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Agenda Argazki-zaharrak Kirolak	ALBISTEAK Agenda Eguraldia
20:30	ALBISTE ERREPIKAPENA	ATXABALTA EZAGUTZEN
21:00	ALBISTE ERREPIKAPENA	ALBISTE ERREPIKAPENA



Loramendi auzoan duen harategira joan gara, Jon Diazekin egoteko. Orain dela gutxi hasi da bertan lanean, baina esperientziaduna da, zazpi urtez harakin lanean aritu baita Eskoriatzan. Lan horren gorabeherak gertuagotik kontatu dizkigu gaurko gonbidatu honek.

• Aretxabaletan harakin, nondik nora?

Lan hau hartzeko aukera izan dut eta harategia erosi egin dut.

• Baina harakin lana ez da berria zuretzat?

Ez, zazpi urtetan zehar harategi batean lan egin dut Eskoriatzan.

• Esperientziaduna, beraz?

Bai, nahikoa.

• Zer da lan honetatik gehien gustatzen zaizuna?

Okela lantzea, txorizo masa egin, hamburgesak... bezero aurreko lana gu-txiago gustatzen zait.

• Zein ezaugarri izan behar du dendari batek?

Bezeroekin atsegina izan behar du eta kompetentea. Beti egia aurretik erabilitea ere oso garrantzitsua dela uste dut.

• Baserrietan animaliak hiltzen ere aritzen zara.

Bai, astebukaeretan deitzen badidate joaten naiz, txerriak, bildotsak... hiltzera.

• Atxabaltarrok okela sanoa jaten dugu?

Nik uste dut baietz. Behi erorik ez dela ona iritsi pentsatzen dut. Dena dela kanpoko okela apur bat beti sartuko da.

• Sagardotegietako txuletak nondik etortzen dira?

Europa aldetik, Dinamarka, Holanda... Europa iparraldetik.

• Non bizitzea gustatuko litzaizuke?

Apotzan baserritxo batean edo... trankilo, trankilo.

• Hiri baten bizitzen ikusten duzu zeure burua?

Ez, ezingo nintzake bizi.

• Zure ametsetako bidaia nora egingo zenuke?

Kanadara, bertako mendietara.

• Jatetxea ala elkartea afaltzeko?

Jatetxea, ez duzu lanik egin beharrik.

• Alkate izango bazina zer aldatuko zenuke herrian?

Ez dakit, herri polita ikusten dut Aretxabaleta. Dena dela, hortaz ohartzeko ez dut denbora larregi ematen bertan.

• Zer da neska batean gehien gustatzen zaizuna?

Beno, ez dakit. Ipurdia esaterako gustatzen zait.

• Zertan pasatzen duzu denbora librean?

Neguan zeozer eskiatu, mendira ere joaten naiz... egia esan ez daukat denbora gehiegi.

• Musika entzutea ala telebista ikustea gurago duzu?

Ekintza desberdinak dira, momentuaren arabera, biak.

• Etxean zein lan egiten duzu?

Etxean gutxi, etxetik kanpo asko egiten dut eta.

• Berriz jaioko bazina harakin izatea gustatuko litzaizuke?

Ez, injinerua, hobeto bizi dira eta.

## KOMIKIA

### BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

# TABERNA eta JATETXEEN GIDA

## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIAK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 85 57

## Express akeitegia

**Express  
akeitegia**

*zure gustoko giroa*

Santa Kurtz, 16  
☎ 943 79 23 43

## Gurea taberna

Jatetxea eta  
taberna

**GUREA**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65


## Arlutz taberna



*Gustoko musika*

Mitarte, 16 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**  
*• Pannila espezialitateak*

Solohaundi-8 ARETXABALETA  
☎ 943 79 68 57

## Mendiola erretegia

**ESKORIATZA**  
Bazkariak  
eta afariak  
Astelehenetan  
itxita

Tfno 714345

**MENDIOLA**

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Bazter alde jatetxea



Sasoiko  
jakiak  
giro  
onenean

Galartza auzoa  
☎ 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Matikua jatetxea



Azatza auzoa ♦ Tfnoa: 943 79 16 68

## Amets taberna

**AMETS**

Taberna eta kafetegia

Iparagirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaleta

## Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

*Josu harategia*

Mitarte, 1 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 77 03 08

## Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 67

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA



**ESKAINITZA  
BEREZIAK**

**Sofa  
leku**

**HIRU JOKO  
LARRUA  
OIHALA  
3+2**

**GRUPO**  
  
**Amuebladora  
Mondragonesa**

